

Mugaldetik, Bakartxo Arrizabalaga Labrousse

GARAZI UGALDE PIKABEA

Itzulpengintzan urte luzez ibilitakoa dugu Bakartxo Arrizabalaga Labrousse (Irun, 1957). Irakasle-ikasketak burutu ondoren, euskara lantzeko grinak akuilaturik iritsi zen itzulpengintzara. Martuteneko Itzultzaile Eskolan ikasitakoak praktikan jartzeko asmoz bihurtu zen itzultzaile, eta, haren hainbat erakundetan aritu ondoren, Eusko Legebiltzarrean jardun zuen zenbait urtez. Gasteizen bizi zelarik, Itzulpengintzako lizentziatura jarri berritan, unibertsitatera itzuli zen. Itzultzaile autonomo jardun du gerora, frantsesa-euskara konbinazioan batez ere. EIZIEko bazkide izan da elkartearen sorreratik, eta lehendakari-kargua bete zuen lau urtez, 2009tik 2013ra. Feminismoaren eta itzulpengintzaren arteko harremana jorratu zuten lehen euskal itzultzaileetakoa da. Bide luzea egin duenaren soseguz aritu zaigu *Senezera*ko, honetaz eta hartaz.

GARAZI: Mugaldekoa zara, Bidasoa ingurukoa.

BAKARTXO: Irunen sortu nintzen, egun haurrak Donostian sortzen diren bezala. Ama Hondarribian bizi zen, baina badut Irunekiko lotura bat ere. Amonak ez zigun uzten hondarribiarrak ginela erraten. Amona irundarra zen, aitona Meudonekoa, 1914ko gerlatik ihes etorria Frantziatik. Aita donostiarra nuen. Gu Hondarribian bizi izan gara, eta bihotzez ere hondarribiarra naiz. Hendaia 1999an joan nintzen bizitzera. Egia da hiru herri horiek elkarri

oso lotuak direla. Txikitan, Hondarribian bizi ginela, jogurtak, mantekila eta hainbat gauza Hendaian erosten genituen.

GARAZI: Beraz, txikitatik izango zenituen hurbil gutxienez hiru hizkuntza.

BAKARTXO: Lehen, Irun eta Hondarribia aldean frantsesa jakitea ohikoa zen, eskolan ikasten baitzen. Frantsesa zen ekonomiara bide bat. Dendetan lan egiteko, adibidez, jakin behar zen. Beste aldean, espainola ere egiten zen. Orain, frantsesa ia desagertu da Irundik eta Hondarribitik. Frantsesa

desagerrarazi digute hezkuntza-sistemaren bitartez, eta hori Hegoalderako desastre bat da. Beste aldean, jende gehiagok daki espainolez. Bizitzeko beharrezkoak bi hizkuntza dira, frantsesa eta espainola. Euskara behar ez den hizkuntza da; nahiz eta bi aldeetako hizkuntza izan, bazter-hizkuntza izaten jarraitzen du bi aldeetan. Hendaian, noranahi zoazela euskaraz egin eta gaztelaniaz erantzuten dizute.

Orain gertatzen da batzuetan bi aldeetako jende gaztearen artean ingelesez moldatzea. Hemengo aldean (Hegoaldean), nabarmen, ingelesaren aldeko hautua egin da. Han (Iparraldean) baduzu hizkuntza letra handitan, frantsesa. Atzerriko hizkuntzetan ingelesa, espainola eta alemana eskaini ohi dizkizute normalean, eta jende anitzek hartzen du espainola bigarren atzerriko hizkuntza gisa. Hegoaldeko jende anitz dago oraingo emigrazioaren ondorioz iritsia, eta beste asko gerra garaiko emigrazioaren ondorengo direnak, aitona-amonak Espainiako gerratik ihes hara joanak dituztenak, nire aldearantziz. Ez da sinestekoa, baina, Hendaian, gerra garaian eta gerra ondoren pasatu ziren guztiekin, egin zen biztanleria bikoiztu. Bi hendaiaurretik bat Hegoaldekoa zen. Hori da etorkinak hartzeko gaitasuna. Orain aipatzen dugu % 20, % 10, % 15... erdia. Jende askok du lotura bat jatorri horrekin. Guk, adibidez, etxean gauza askorekin frantsesezko hitzak sartzen genituen. Nahitaez sortzen zaizu halako lotura bat.

GARAZI: Hortik datorkizu itzulpengintzarekiko grina? Nola iritsi zinen ofiziora?

BAKARTXO: Ni itzulpengintzara, beste jende asko bezala, euskara landu nahian heldu

nintzen. Orain ez da euskaraz bizitzeko aukera handi-handirik, baina bada zerbait. Aipatzen ari natzaizun garai hartan, 1980 inguru hartan, ez zen aukera handirik euskara lantzeko. Nik irakasle-ikasketak egin nituen, Donostian, erdara hutsean; azken urtean uste dut sartu zigutela euskarazko ikasgaia. Gero, lanera, ikastoletan eta horrela. Nik euskara landu nahi nuen. Ez dakit nola ezagutu nuen Martuteneko Itzultzaile Eskola, ez dakit nola etorri zitzaidan begietara. Lehen urtea egina zuten ni sartu nintzenean. «Hemen euskara topatuko dut» pentsatuz joan nintzen. Gogoan dut ikaskideekin mintzatuz haiek erraten zutela antzeko egoera batean etorri zirela; ez dut uste inortxok zeukanik itzulpengintzarako halako asmo, gogo, tirriarik. Uste dut itzulpengintza bigarren pauso bat izan zela. Martuteneko ikasketa horiek egiteko utzi nuen eskolako lana eta berriz ere ikastera joan nintzen, eta hiru urte egin.

Handik aurrera, titulua eskuetan, lana bilatu behar, baina ez zen gaur egungo lan kantitaterik ere. Itzuli nintzen zertxobait eskoletara, ordezkapenak egitera, zarpailki, edo prekarietatean, orain esaten den gisan, eta, horrela, pixkanaka joan nintzen itzulpengintzan sartzen. Irakasle zoragarri haiekin itzulpengintzarekiko grina eta gogo sortu zitzaidan; euskara lantzen jarraitzeko bidea ere bazen. Geroztik, etengabeko lan-keta izan da eta izaten ari da, alde horretatik interesgarri. Horrek berak ekartzen dizu gero hizkuntzekiko interesa, hizkuntzen arteko desberdintasunen ingurukoa. Lanean ari zarenean, gogoareagotzen zaizu.

Hor ibili nintzen bolada batez gero eta ordezkapen gutxiago egiten hezkuntzan eta

gero eta gehiago itzulpengintzan. Hainbat erakundetan ibili nintzen ordezkapenak egiten, eta halako batean suertatu zitzaidan Eusko Legebiltzarrean bederatzi urteko ordezkapen bat. Testu-itzulpena egiten nuen. Martutenen ez genuen interpretaziorik landu.

GARAZI: Gasteizen Itzulpengintza eta Interpretazioa ikasi zenuen gero, ordea.

BAKARTXO: Gasteizen izan nintzen garaian, orduantxe hasi zen unibertsitatean Itzulpengintza lizentzia, eta aprobetxatu nuen han lizentzia ateratzeko. Lizentzia eginik, banuen interpretazioa egiteko aukera, baina Eusko Legebiltzarrean nuen postua itzul-tzailearena zen, eta inoiz ez zidaten eskatu, eta, gainera, interpretazioa ez da niretzat egina. Gauzak gehiegi pentsatzen ditut, ez naiz zirtolaria, ez dut lastertasun hori, bizitasun hori. Gauza bat erraten badidate, hausnartu egiten dut lehenengo, eta gero erantzuten dut. Ikasketetan, hori izan zen gogorrena. Kabinan sartu, eta niri etortzen zitzaidan entzundakoaren gaineko gogoeta egitea. Konturatzen naiz izaeraz ez dela niretzat. Testuetan, xehetasunetan sartzen naiz, eta, idatzi eta gustura geratu ez banaiz, bueltaka ibiltzen naiz gero, arraunean ari naizela edo beste nonbait ere.

GARAZI: Horretan aritu zara urte luzez, testu-itzulpengintzan, autonomo gisa.

BAKARTXO: Bai. Gasteizen, aspertu samar ibili nintzen. Zuhaitz zaharrak ez du erraz erroak alde batetik bestera aldatzerik. Nik erroak Bidasoaldean eginak nituen, eta ibiltzen nintzen beti hara begira. Gero, etxera

itzultzea lortu nuenean, autonomo jarri nintzen, Hendaian, eta frantsesa-euskara konbinazioan aritu naiz harrezkero.

GARAZI: Nolakoa da frantsesa-euskara konbinazioan lan egitea? Ba al dago lanerako esparru berezirik?

BAKARTXO: Administrazioa, bere zabalean: herriko etxeetatik Euskal Elkargoraino. Elkargoak gero eta gehiago eskatzen du, baina udalenak dira eskaerak batez ere. Dozena bat lagun ibiliko gara lan horretan. Bada lan pixka bat, eta, azken boladan, gero eta gehiago. Euskal Elkargoak, sortu zenetik, politika argitxoa darama euskararen alde. Erakundeek ez dute euskara derrigor, baina azkenerako ez pentsa hainbeste aldatzen denik. Hegoaldean, kopurutan-eta gehiago itzultzen da, baina zenbat erabiltzen da? Iparraldean apenas, eta ez dakit gure itzulpenak inork irakurtzen ote dituen, baina hemen ere antzekoa da egoera.

Nik Eusko Legebiltzarrean itzultzen nituen testu haiek ez zituen inork irakurtzen. Gaztelaniaren ondoan zihoan testu hutsala zen, deusetarako balio ez zuena. Euskara lantzeko aukera zen, ordea, guretzat, hizkuntzari zuena ateratzen saiatzeko. Baina ez zen beti onartua izaten; behin entzun behar izan nuen «Autonomia Erkidegoaren euskara» behar nuela erabili. Pentsa liteke euskal erakundeek euskara eta euskal nortasuna bultzatuko dutela, baina batzuetan alderantziz da; euskal mundua txikia da, eta batzuek are eta gehiago murrizten dute. Oso bestelako esparru batean ere gertatu zait orain hori, Euskal Arraun Federakuntzak debekatu baitigu Iparraldeko eta Nafarroako klubei Euskadiko txapelketan parte hartzen.

GARAZI: Hitz egin dezagun EIZIEen emandako urteez. Elkarteko kide izan zara hasiera-hasieratik, 1988ko Batzar Nagusitik. Nola gogoratzen duzu garai hura?

BAKARTXO: Oso gutxi dut gogoan. Gogoan dut bulegoa; gogoan dut hainbat bilkura egin izana; gogoan ditut bultzatzaile izan zirenak. Ni Martutenetik nentorren, haiek ere bai, eta nolabait haiek ekarria nintzen ni EIZIEra. Han egindakoa segida bezala bizi izan nuen pixka bat EIZIE. Orduan ere hasi ginen Literatura Unibertsala proiektuarekin: zer itzuli behar zen eta zer ez, itzulgaien zerrendak egiten. Niretzat, dena berria zen, gazte-gazte, ezezagun zitzaidan dena, eta han baziren gauza zertaz zihoan bazekitenak, Lurdes (Auzmendi), Josu (Zabaleta), Xabier (Mendiguren), eta, gero, Arantzazu (Royo), funtsezko ardatz bihurtu dena elkarte honetan eta derrigorrez elkarriketatu behar duzuen.

GARAZI: Kontuan hartuko dugu proposamena hurrengo *Senez* baterako. Elkarteko lehendakari ere izan zinen lau urtez, 2009 eta 2013 artean. Arazo edo lorpen berezirik izan al zen aro hartan?

BAKARTXO: Gero etorri zen bigarren parte hori, lehendakari izan nintzena. Bi agintaldi egin nituen. Oso gustura geratu nintzen, zerbait egin genuela iruditzen zaidalako. Hor Bego Montoriorren lana oso inportantea izan zen. Jone Aldamiz ere hor zen. Gauza da halako krisi-momentu batera iritsi zela EIZIE, eta krisia diot zentzurik literalenean. Lehengo buru haiek alde eginak ziren, eta berriak ez ziren sortu, eta hor egin behar zen zubi-lan hori. Hasieran nintzen

gazte ezjakin hura hasia zen zerbait ulertzen EIZIEz, itzulpengintzaz, munduaz... Bizi izandakoak emaniko esperientzia edo zerbait banuen, eta hortik Bego, Arantzazu eta Jonerekin batera gogoeta bati ekin genion, EIZIE non kokatu nahi genuen, zer behar zuen izan lantzeko. Bi urte, egia erran, labur egin zitzaizkigun, eta nik sentazioa dut lau urte horiekin lortu genuela egin behar zen gogoeta egiten, bide berriak irekitzen eta zuen eskuetan gauzak uzten. Bide berria irekia genuela eta ez zegokigula guri segitzea, baizik eta berriei zegokiela lekukoa hartu eta segitzea. Lan hori uste dut egin genuela; talde-lan polita izan zen, eta nahaste-borraste ikargarria.

GARAZI: Ez zen erronka txikia...

BAKARTXO: Ez, ez zen txikia. Gure aurrekoek eginik utzitako lana handia zen, eta ezin zen hortik jaitsi. Behar zen hor mantendu, eta hori ez zen erraza ere. Ni kontent naiz egin genuen harekin.

GARAZI: Garaitsu hartan, Langintza Xeheki jarri zenuten martxan, zure ekimenez besteak beste.

BAKARTXO: Bai, ordura arte baziren itzultzen ziren lanen abisuak egunkarietan eta. Hau atera da, eta horren berri ematen zen, eta *punto*. Itzultzeko maneraz, egin zen lanaz ez zen kritikarik. Nik itzulpen-kritikaren beharra sentitzen nuen, eta hori bultzatu behar zela iruditzen zitzaidan. Sentitzen dut oraindik ere horren beharra.

GARAZI: Itzulpen-lanek lehen baino presentzia handiagoa dute prentsan, baina kritika liburuari egiten zaio, eta ez hainbeste

itzulpenari. Badirudi fokua hor dagoela jarrita. Ez ote da ausardia falta itzulpena baloratzeko?

BAKARTXO: Hori esatera nindoan. Horrek ere kezkatzen nau. Nik uste dut kritikak ere ez duela zertan izan behar «gaizki edo ongi da». Kritika egin diezaiokezu lan horri itzultzaileak egin duen lana aztertuz, asmo onez eta begirada positiboz edo, zer egin duen ulertzen laguntzeko. Egiten diren itzulpen-lan guztiek dute alde on bat, eskas den zerbait, oso ona den zerbait... Hor, kritika egiten ari zarenean, hauta dezakezu nondik jo, zer erran. Nik uste dut itzulpen-kritikaren behar handiena duena ez dela liburuaren irakurlea, baizik eta itzultzailea bera. Gure artean behar dugu lan hori egin. Itzulpen-kritika egingo balitz, eta, begira, lana egin duen itzultzaileak bakarrik irakurriko balu ere, oso baliagarri litzateke. Batez ere ideia horrekin behar dugu itzultzaile gisa jardun. Niri ez zait batere interesatzen nire lankide batek egin duen itzulpena prentsan edo nonahi jipoitzea, mundu guztiak irakur dezan oso lan txarra dela. Nora goaz horrekin? Ez du ezertarako balio, *kotilleorako* bakarrik. Ez da hori gaia. Lan egiten laguntzea da kontua, tresnak ematea.

Horrekin, beste gauza batera gatoz, oinarrizkoagoa den eta egin gabe dagoen beste gauza batera; alegia, hizkuntzaren lanketara. Euskal Filologia egin, eta itzultzen jaritzen dira, edo euskara irakasten, lizeoetan. Ez ote dago beste zereginik? Nik sumatzen dut huts handi bat euskararen azterketan. Euskararen estilistika-libururik ezagutzen duzu? Ba ez. Euskararen inguruko azterketa literarioak eta ez dira egiten. Nik nola jakin

dezaket frantsesezko pasiboarekin zer egin behar dudan euskarara ekartzean? Zergatik ez dakit zer balio duen ergatiboak euskaraz, adjektibazioak euskaraz; zer egin behar dudan espainolezko adjektibazio ikaragarri zabalarekin euskaraz; zer balio duen gerundioak euskaraz? Ez dago. Lan hori behar dugu.

GARAZI: Horrek lagunduko liguke itzulpen-estrategiak presenteko edukitzen.

BAKARTXO: Bai, hori da. Eta guk egin behar dugu lan hori? Nik Langintza Xehekiren ideia bota dezaket, eta EIZIEn bultza deza-kegu, baina beste hori ez dagokigu guri, eta, dagokionak egiten ez badu, jai dugu.

GARAZI: Ez al dagokie hori Itzulpen Ikasketei?

BAKARTXO: Bai, baina Euskal Ikasketetik etorri beharko litzauguke jada lan hori egina, eta elkarlana egin beharko litzateke. Lehen aipatu dizudan bezala, ni Martutenera euskara lantzeko joan nintzen, hain zuzen ere, eta Itzulpengintzarekin topatu nintzen elkarri loturik zirelako. Baina euskararen lantze hori ere egin behar ote dugu? Hutsune nabarmena sumatzen dut hor.

GARAZI: Itzulpen-politika baten beharra eztabaidagai izan dugu Elkartearen azken urteotan. Zer iritziz duzu zuk gaiaz? Zer urrats dauzkagu egiteko?

BAKARTXO: Orain aipatu dizudanaren haritik, itzulpen-politika baino lehen, hizkuntza-politika behar da. Ez dagokigu guri egitea. EIZIEk parte har dezake —gainera, politika parte-hartzaileak oso modan daude orain—,

baina horretarako behar da gobernu bat. Gobernuaren zeregina da hizkuntza-politika egitea eta horren barnean itzulpen-politika egitea. Orain politikari horietako bat hemen bagenu, erranen liguke: «Baina egiten dugu hizkuntza-politika». Badakigu zertaz ari diren: dirulaguntzak, euskara-mailak, ereduak... Hori da oinarriaren azpiko gauza bat, zero azpitik gaudelako. Hori Frantzia edo Espainia edo Ingalaterra batean ez da planteatzen, beren hizkuntzaz ari badira (multilinguismoa bazter utzirik). Eta horiek badute oinarri bat: denek dakite frantsesez eta denek dakite espainolez. Gu horren azpitik hasten gara. Orduan, zeroraino heltzeko, gauza horiek egin behar dira, eskoletan, Administrazioan-eta, baina hori da zero azpitik. Gero, hortik gora, beste herrialdeek egiten dutena ere egin behar da, eta, horretarako, egin behar da hizkuntza hori bultzatu, ez bakarrik jendeek jakin dezaten. Zenbat jende daki euskaraz? Hori ez da inporta duena, baizik eta zenbat jende egiten duen euskaraz, eta zenbatek egiten duten ongi eta zenbatek lantzen duten, zenbat jende aberasten den intelektualki euskararekin eta zenbat jende ekartzen dion euskarari intelektualki zerbait. Hori guztia nik ez dut ikusten. Pasatu diren hamaika gobernutan ez dut ikusi. Horren barnean sartzen da itzulpen-politika. Besteak beste, zer liburu nahi ditugun edo behar ditugun euskaraz, zer ekarri behar dugun beste hizkuntzetatik euskarara, zer behar duen euskarak itzulpengintzaren bitartez bete daitekeena. Hori guztia ez da hausnartu.

GARAZI: Ekimenak badaude –aipatu ditugu hemen batzuk–, baina ez dira aski, ezta?

BAKARTXO: Hori da. Guk egiten dugu hemen hausnarketa hori, zer beharko litzatekeen itzuli, eta abar, baina gure ikuspuntua mugatua da. Oso ongi da, guk egiten dugun lana ikaragarria da, beharrezkoa, baina, bakarrik egin ordez lan hori taldean egingo bagenu, jakingo bagenu zer behar dituen euskarak, zer alde garatu behar dituen. Euskarak balio ote digu den-dena errateko? Zer pentsa dezakegu euskaraz? Zer ezin dugu euskaraz pentsatu? Itzulpenak berak ekarri dio baliabide asko euskarari, hori Andu Lertxundik dio behin eta berriz, baina agian ikus genezake zerbait eskas dugula, behar genukeela beste hizkuntzetatik testu motaren bat itzuli eta ikusi nola garatzen dugun hori. Euskara garatu beharra dago beste hizkuntza guztiak bezala, eta ez denbora guztian besteen mendean izan, ze hori du euskarak tragedia. Euskaraz ez da sortzen, oro har. Gero sortzen dira gauzañoak eta oso ongi da, baina oro har ingelesez sortzen da, eta ingelesetik ekartzen ditugu gauzak.

Gauza horiek guztiak elkarlan batean sortzen dira askoz ere errazago. Egia da horrelako pertsonaia buruargi zenbait badirela, bai euskararen alorrean eta bai itzulpengintzarenean, gauzak bultzatu dituztenak eta gauza asko konpondu digutenak, baina behar da lantzen segi. Ditugun politikariak ditugu, eta esperantza handirik ere ez dut haiengandik. Azkenean, politikariek egiten ez dutena, ohituraz, gizarte zibilak egiten du. Nola edo hala jarraituko dugu horrelako gauzak egiten, gure guztiz ez direnak, baina beste inork egiten ez dituenek egingo ditugunak. Gauzak ikusten ditudan bezala erraten ditut. Agian balio du norbaitek sentitu duen zerbait pitzarazteko, partekatzeke.

Batzuetan, hortik sortzen da indarren bat. Hala balitz, ongi.

GARAZI: Mugako kontuetara itzuliz... Itzulpengintzan sumatzen al duzu alderik batean eta bestean? Eguneroko lanean desberdin jokatzeko al duzu Iparraldeko edo Hegoaldeko bezeroentzat ari zarenean?

BAKARTXO: Desberdin jokatzeko duzu bezero bakoitzarekin, bakoitzak bere maniak dituelako, eta euskara batua askorik garatu ez delako. Euskara batua neurri batean kimera bat da, baina bide handia egin du, eta oso baliagarria izan da. Gaur egun, baina, euskara batua Euskal Autonomia Erkidegoko euskararekin lotzen da. Espainiol hutsezko mendekotasunpean diren gauzak lasaiki esaten dira euskara batua delakoan, eta, aldiz, beste aldean erdaratik (frantsetik, noski) hartu gauzak esaten direnean, frantseskadatzat hartzen dira Hegoaldean. Hemen (Hegoaldean), «erdarakada» hitza modaz pasea da erdara espainola bada.

Eta ez bakarrik erdararen mendekotasunaren aldetik. Bizkaieraren kasua ere hor da. Niretzat, Bizkaian bakarrik erabiltzen den hitz bat euskara batua da, baina Xiberoan erraten den beste gauza bat ere hala da, zeren batua ez baita bat kendu eta bestea kendu; alderantziz da, batu. Eta, alde horretatik, iruditzen zait ez garela ari euskara batuen bidetik, gure txokoan ari garela, eta, gainera, batzuetan oso joera itsusiarekin.

GARAZI: Feminismoaren eta itzulpengintzaren arteko harremana jorratzen lehen euskal itzultzaileetakoa zara. «Itzulpena eta feminismoa» artikulua idatzi zenuenetik (*Senez* 32, 2007), urratu al da biderik?

BAKARTXO: Bai, egin da bidea, batez ere orain feminismoa ez delako lau oilo eroren xelebrekeria; boladan da orain, baina hor ere bada arazo, bada arrisku.

Ni feminismoan hasi nintzen garaian, pentsamendu zuzenetik kanpoko okerbideak zen feminismoa, marimutil antigizon marigaizto amorratuen gauza, eta hori askoz dibertigarriagoa zen, bere seriosean, askoz biziagoa. Jaso genuena zalantzan jartzen zuen, eta eztabaidatik eztabaidara gindermatzan zerbait zen. Gure bizitzaz galdekatzeko zigen zerbait zen. Orain, neurri batean, pentsamendu zuzenera etorri da, tristeki; feminismo *mainstream* horrek erlijio-kutsua du, eta, aukera berriak zabaldu ordez, eztabaida sustatu ordez, blasfemia-zigorrak ezartzen dituzten apaiz intolerante mota berriek mende hartu dute, neurri batean. Baina argi da gauzak modan jartzen direnean sormenaren eta askatasunaren kalte izaten dela. Garai batean, feminista ginela esateko ausardia behar genuen, eta, orain, alderantziz, feminista ez zarela ezin esan. Baina katixima eta feminismoa ez zaizkit bateragarri iruditzen. Ausart jokatu beharko dugu berriz ere, eta hitzak erranahiz betetzeko jarraitu.

Dena den, itxurakeria guztiaren isilean, bada gaur egun ere alorra egiazki lantzen ari den jenderik, bide bila dabilenik, esku batean segurtasunak eta bestean zalantzak eramanez ibiltzera ausartzen denik. Feminismoa itsaso zabal-zabala da, zerumuga urrunekoa, eta hor nabigatu nahi duenarentzat beti da zer ibili, arauaz kanpo pentsatzeko debekuagatik ere, feminismoaren muinean baita debekuen gainetik ibiltzea.

Resumen

Bakartxo Arrizabalaga Labrousse (Irún, 1957) atesora una extensa trayectoria como traductora. Tras diplomarse en Magisterio, el deseo de profundizar en la lengua vasca la llevó a interesarse por la traducción, y a formarse en la Escuela de Traductores de Martutene. Puso en práctica su capacitación en diversas entidades, antes de ocupar un puesto de traductora en el Parlamento Vasco. Volvió a la universidad para cursar el recién creado grado de traducción e interpretación en Vitoria-Gasteiz, ciudad en la que entonces residía. Más tarde se convirtió en traductora autónoma, sobre todo en la combinación francés-euskera. Es miembro de EIZIE desde la creación de la asociación, y fue su presidenta durante cuatro años (2009-2013). Es una de las primeras traductoras que ha estudiado la traducción desde el punto de vista del feminismo. En esta entrevista desgrana diversas cuestiones, desde la serena perspectiva de su larga experiencia.

Résumé

Bakartxo Arrizabalaga Labrousse (Irun, 1957) travaille depuis de nombreuses années comme traductrice. Après des études pour devenir enseignante, elle est venue à la traduction par goût pour la langue basque. Elle est devenue traductrice dans l'intention de mettre en pratique les connaissances acquises à l'École des traducteur·rice·s de Martutene, et après avoir travaillé dans diverses institutions, elle a été pendant plusieurs années traductrice au Parlement basque. Lorsqu'elle vivait à Vitoria-Gasteiz, on venait d'ouvrir le cursus de traductologie et elle est ainsi retournée sur les bancs de l'université. Ensuite, elle a travaillé comme traductrice indépendante, notamment dans la combinaison français-basque. Elle est membre d'EIZIE depuis la création de l'association et y a également été présidente durant quatre ans, de 2009 à 2013. Elle est l'une des premiers traducteur·rice·s basques à avoir traité les rapports entre féminisme et traduction. Pour *Senez*, elle nous a parlé à bâtons rompus, avec le flegme de celui-elle qui a déjà parcouru un long chemin.

Abstract

Bakartxo Arrizabalaga Labrousse (Irun, 1957) has worked in translation for many years. She came to the field of translation after completing her teacher training, spurred on by her passion for the Basque language. She became a translator with the aim of putting into practice what she had learned at the Martutene Translators' School and, after working in different places at various organizations, she worked for several years in the Basque Parliament. While living in Vitoria, she returned to the university having recently earned her degree in translation. She later worked as a free-lance translator, translating mainly between French and Basque. She has been a member of EIZIE since the association was founded, and served as its president for four years, from 2009 to 2013. She is one of the first Basque translators who have addressed the relationship between feminism and translation. She spoke with us at *Senez* about her long journey in translation, among other things.